Akordio proposamena
TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK:
ONARTUA
Propuesta de acuerdo a
JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:
APROBADA

TGB Bilkura
Sesión JGL
2026/03/03

Zinegotzi idazkaria / Concejal-a
Olatz Yarza Garagorri

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Bide Publikoetako Zerbitzua – Servicio de Vías Publicas
Urdaneta 13 | Tel. 943481049 - 94348100 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

ESPT. ZBKIA / Nº EXPT: **2025/100**

DONOSTIA HIRIKO BARANDAK, OINEZKOEN BABESGARRIAK, ITXITURAK ETA HIRIAN DIREN BESTELAKO ERREMENTARITZA-LANAK KONPONDU, BERRITU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK.	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SERVICIO DE REPARACIÓN, RENOVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE BARANDILLAS, DEFENSAS PEATONALES, CERRAMIENTOS Y OTROS TRABAJOS DE HERRERÍA EN LA CIUDAD DE DONOSTIA/ SAN SEBASTIÁN.**
AURKIBIDEA	**INDICE**
1.- KONTRATUAREN XEDEA ETA IRISMENA 2.- KONTZEPTUEN DEFINIZIOA 2.1.- ERREMENTARITZA-LANAK 2.2.- HORNIDURAK 2.3.- LANAK ADMINISTRAZIOAREN ARABERA 3.- LANEN ANTOLAMENDUA 4.- GIZA BALIABIDEAK 5.- BALIABIDE MATERIALAK 6.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA 7.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUNKIZUNA I. ERANSKINA: UNITATEKO PREZIOAK ETA HAZTAPENA	1.- OBJETO Y ALCANCE DEL CONTRATO 2.- DEFINICION DE CONCEPTOS 2.1.- TRABAJOS DE HERRERIA 2.2.- SUMINISTROS 2.3.- TRABAJOS POR ADMINISTRACIÓN 3.- ORGANIZACIÓN DE LOS TRABAJOS 4.- RECURSOS HUMANOS 5.- RECURSOS MATERIALES 6.- PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES Y GESTION DE RESIDUOS 7.- RESPONSABLIDAD DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA ANEXO I: PRECIOS UNITARIOS Y PONDERACION
1.- KONTRATURAREN XEDEA ETA IRISMNEA	**1.- OBJETO Y ALCANCE DEL CONTRATO**
Agiri honetan ezartzen dira bide publikoan zerbitzu hauek emateko kontratua arautuko duten baldintza teknikoak: ✓ Barandak, oinezkoen babesgarriak, eskudelak, lorategi-babesleak eta piboteak konpontzea, berritzea eta mantentzea. ✓ Hirian jarritako itxitura eta itxitura metalikoei lotutako errementaritza-lanak. ✓ Baranda, oinezkoen babesgarriak, eskudel, lorategi-babesle, pibote, itxitura eta itxitura metalikoen unitate berriak instalatzea. ✓ Merkataritza-fabrikaziokoak ez diren barandak fabrikatzea. ✓ Sarrailagintza-lanak egitea eta udal giltzarrapoak eskuratzea. Honako lan hauek ere egin beharko dira, behar denean: jada instalatuta dauden elementuak kentzea, instalatu	En el presente pliego se establecen las condiciones, de carácter técnico, que regirán el contrato, de la prestación de los siguientes servicios en la vía pública: ✓ Reparación, renovación y mantenimiento de las barandillas, defensas peatonales, pasamanos, guardajardines y pivotes. ✓ Trabajos de herrería relacionados con cierres y cerramientos metálicos instalados en la ciudad. ✓ Instalación de nuevas unidades de barandillas, defensas peatonales, pasamanos, guardajardines, pivotes, cierres y cerramientos metálicos. ✓ La fabricación de las barandillas que no sean de fabricación comercial. ✓ Trabajos de cerrajería y suministro de candados municipales. Las labores incluirán en su caso, la retirada de elementos ya instalados, replanteo de los nuevos elementos a instalar, así como el picado y recibido de pies derechos,

beharreko elementu berriak zuinkatzea, bai eta zutikoak pikatzea eta hartzea ere, are "in situ" soldatutako punta edo zarpak jartzea, hobeto finkatuta gelditzeko. Lanak Donostiako udalerriko edozein tokitan egin daitezke, Zubieta, Landarbaso eta Oberan barne direla.	incluso zarpas soldadas "in situ" para mayor fijación. Los trabajos podrán afectar a cualquier punto del término municipal de Donostia / San Sebastián, incluyendo Zubieta, Landarbaso y Oberan.
2.- KONTZEPTUEN DEFINIZIOA	**2.- DEFINICION DE CONCEPTOS**
Ondoren zehazten dira I eranskinean gehitutako prezio unitarioei dagozkien kontzeptuak.	A continuación, se definen los conceptos de los precios unitarios adjuntados en el Anexo I.
2.1.- ERREMENTARITZA LANAK	**2.1.-TRABAJOS DE HERRERIA**
Kontratuaren xede diren lanek hirian den aniztasun eta tipologia osoa hartzen dute barruan; ohikoenak hauek dira: 1) **Baranda ESTANDARRA**: Altzairuzko 1060 mm altu, 50 x 10 mm-ko hagunean egina horizontalean, material bereko zutikoekin, 60 x 10 mm-ko biribil-erdiko eskudela eta 16 mm-ko karratua bertikalean. Barandak metalizatua izan behar du, zinka sutan urtu eta material hura jariatuta gero, eta labean margotua, poliester-hautsezko pinturaz. Baranda osatzen duten elementu guztiak trinkoak izango dira. Zutikoek 1260 mm utzi behar dute batetik bestera. 2) **Pasealeku Berriko baranda**: AISI 316 altzairu herdoilgaitzezkoa izan behar du, esmerilatua eta laserrez ebakitako pletinaz osatua; gaur egun hiriko Pasealeku Berrian jarrita dagoen modeloa bezalakoa,hormigoizko zutoinei lotzeko uztaiak barne. Hormigoizko zutoinak ez dira barandaren parte izango. 3) **Salamanca pasealekuko baranda**: AISI 316 altzairu herdoilgaitzezkoa izan behar du, ispilu-leunketa emanda izan eta gaur egun jarrita dagoen ereduaren arabera osatua: 12 mm lodiko altzairu herdoilgaitzezko pletinak laserrez moztuta egindako zutikoz eta altzairu herdoilgaitzezko beste hiru hodi horizontalez. Leunduta izan behar dute hodi horizontalek ere. Goikoak 50,8 mm eta beheko biek 33 mm izan behar dute, eta 2 mm lodierakoak hirurak.	Los trabajos objeto del contrato abarcan toda la diversidad y tipología existente en la ciudad, entre las que son las más comunes, las siguientes: 1) **Barandilla modelo TIPO**: Barandilla de acero de 1060 mm de altura construida en llanta de 50x10mm. en sentido horizontal, con pies derechos del mismo material, media caña de 60x10mm. como pasamanos y cuadrado de 16mm. en sentido vertical. La barandilla llevará un tratamiento de metalizado a fuego con cinc, previo chorreo del material y estará pintada con pintura en polvo de poliéster al horno. Todos los elementos que conforman la barandilla son macizos. Los pies derechos están situados a 1260 mm entre sí. 2) **Barandilla Paseo Nuevo**: Barandilla construida en acero inoxidable AISI 316 esmerilado, compuesta por pletinas cortadas por láser, según el modelo actualmente instalado en el Paseo Nuevo de la ciudad, incluyendo los aros de fijación a los postes de hormigón, excluyendo los citados postes de hormigón. 3) **Barandilla Paseo de Salamanca**: Barandilla construida en acero inoxidable pulido espejo AISI 316, compuesta por pies fabricados con pletina de acero inoxidable de 12 mm de espesor cortada por láser según el modelo actualmente instalado y tres tubos horizontales también de acero inoxidable pulido. Uno superior de 50,8 mm y dos inferiores de 33 mm y ambos de 2 mm de espesor. Estará sujeta a suelo mediante pletina del mismo material

Zoruari lotu, material bereko pletina bat zutikoaren oinari soldatu eta altzairu herdoilgaitzezko torlojuak sartuta egingo da.

4) **Haurrentzako jolasen baranda herdoilgaitza**: 1000 mm altuerako baranda, 50,8 mm-ko hodiz (AISI-316 altzairu herdoilgaitzezko 2 mm lodikoa) egina, zutikoak gutxi goiti-beheiti 1500 mm-z behin direla, eta material bereko barra bat tartean dela. Zutikoen eta eskudelen eta tarteko barraren eta zutikoen arteko loturak 20 mm-ko AISI-316 altzairu herdoilgaitzezko ziriz egingo dira.

5) **Baranda herdoilgaitz estandarra**. Baranda egiteko materiala AISI-316 altzairu herdoilgaitza izango da eta ispilu-leunketa emanda izango du hark; 1000 mm garaiera izango du eta 50 x 10 mm-ko hagunez egingo da horizontalki, material bereko zutikakoz; goiko aldean 50,8 mm-ko hodia izango du eskubanda eta material bereko 10 mm diametroko hodia bertikalean. Zutiko batetik bestera 1260 mm izango dira.

6) **Eskubanda herdoilgaitza, zutikako zuzenduna**: 1000 mm altuerako baranda, 50,8 mm-ko hodiz (AISI-316 altzairu herdoilgaitzezko 2 mm lodikoa) egina, ispilu-leunketa emanda altzairuari, zutikoak material horrekin berarekin egindako 50x10 mm-ko hodiz edo hagunez eginda eta gutxi goiti-beheiti 1500-2000 mm-z behin direla haiek.

7) **Eskubanda bikoitz herdoilgaitza, zutikako zuzenduna**: 1000 mm altuerako baranda, 50,8 mm-ko hodiz (AISI-316 altzairu herdoilgaitzezko 2 mm lodikoa) egina, ispilu-leunketa emanda altzairuari, bi eskubanda izango dituena mugikortasun murriztua duen pertsonentzako, zutikoak material horrekin berarekin egindako 50x10 mm-ko hodiz edo hagunez eginda eta gutxi goiti-beheiti 1500-2000 mm-z behin direla haiek. Bigarren eskubanda zutikoari lotzea material bereko 14 mm-ko diametroko hagaxka tolestatua zutikoei edo hagunari berari soldatuta egin behar da.

soldada a los pies de la barandilla y tornillería de acero inoxidable.

4) **Barandilla inoxidable juegos infantiles**: Barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo de 50,8 mm, de acero inoxidable pulido AISI-316 de 2 mm de pared, con pies derechos situados cada 1500 mm aproximadamente y barra intermedia del mismo material. La unión entre pies derechos y pasamanos y entre barra intermedia y pies derechos se hace con un tubillón de acero inoxidable AISI-316 de 20 mm.

5) **Barandilla tipo inoxidable:** Barandilla de acero inoxidable pulido espejo AISI-316 de 1000 mm de altura construida en llanta de 50x10mm. en sentido horizontal, con pies derechos del mismo material, acabado en tubo de 50,8 mm en la parte superior como pasamanos y tubo del mismo material de 10 mm. de diámetro en sentido vertical. Los pies derechos están situados a 1260 mm entre sí.

6) **Pasamanos inoxidable un tubo con pies derechos**: barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo de 50,8mm., de acero inoxidable pulido espejo AISI-316 de 2mm de pared, con pies derechos ejecutados con el mismo tubo o con llanta 50x10 mm del mismo material, situados cada 1500-2000mm, aproximadamente

7) **Pasamanos doble inoxidable con pies derechos**: barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo de 50,8mm., de acero inoxidable pulido espejo AISI-316 de 2 mm de pared, con doble pasamanos para personas de movilidad reducida, con pies derechos ejecutados con el mismo tubo o con llanta 50x10 mm del mismo material, situados cada 1500-2000 mm aproximadamente. La sujeción del segundo pasamanos se debe hacer mediante varilla del mismo material doblada de diámetro mínimo 14 mm soldada a los pies derechos, o en la propia llanta.

8) **Hormako eskubanda herdoilgaitza:** AISI-316 altzairu herdoilgaitzezkoa izan behar du, 2 mm lodiko 50,8 mm-ko hodiz egin eta ispilu-leunketa eman. Paretari erantsi, gutxienez 14 mm-ko diametroko material bereko hagaxkaren bidez egin behar zaio, gutxi gorabehera 1500 mm-z behin sartuta hegaxkak. Hagaxkak paretari hartarako erabili behar diren erretxinaz lotu behar dira.

9) 1**,5 "-ko eskubanda, zutikako zuzenduna**: 1000 mm altuerako baranda, 1,5 ”-ko diametroko eta 2,7 mm lodiko hodi galbanizatuz egina, zutikoak material horrekin berarekin egindako 50x10 mm-ko hodiz edo hagunez egin eta 1500-2000 mm-z behin sartuta direla eta puntetako bukaerak biribildu edo bihurtuta. Baranda bukatzeko, inprimazio esku bat, klorokautxuzko bi eta esmaltezko bat eman behar da.

10) **1,5 "-ko eskubanda bikoitza, zutikako zuzenduna:** 1000 mm altuerako baranda, 1,5”-ko diametroko eta 2,7 mm lodiko hodi galbanizatuz egina, bi eskubanda izango dituena mugikortasun murriztua duen pertsonentzako, zutikoak material horrekin berarekin egindako 50x10 mm-ko hodiz edo hagunez eginda eta gutxi gorabehera 1500-2000 mm-z behin direla haiek. Bigarren eskubanda zutikoari lotzea material bereko 14 mm-ko diametroko hagaxka tolestatua zutikoei edo hagunari berari soldatuta egin behar da.

11) **Hormako eskubanda, 1,5”-koa**: 1,5”-ko diametroko eta 2,7 mm lodiko hodi galbanizatuz egina, gutxienez 14 mm-ko diametroko material bereko hagaxka gutxi gorabehera 1500 mm-z behin horman sartu eta erantsita hari. Hagaxkak paretari hartarako erabili behar diren erretxinaz lotu behar dira. Baranda bukatzeko, inprimazio esku bat, klorokautxuzko bi eta esmaltezko bat eman behar da.

12) **Oinezkoentzako babesa, 1,5 ”-ko barra batekoa**: 1000 mm altuko baranda, 1,5 ”-ko diametroko eta 2,7 mm lodiko hodi galbanizatuz egina, zutiko zuzenak gutxi gorabehera 1500

8) **Pasamanos inoxidable a pared**: Pasamanos construido con un tubo de 50,8 mm de acero inoxidable pulido espejo Aisi-316 de 2 mm de pared sujeto a pared mediante varilla del mismo material de diámetro mínimo 14 mm, situadas cada 1500 mm aproximadamente. Las varillas se sujetarán a la pared mediante resinas apropiadas.

9) **Pasamanos de 1,5" con pies derechos**: Barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo galvanizado de 1,5“ y 2,7 mm de espesor con pies derechos ejecutados con el mismo tubo o con llanta 50x10 mm del mismo material, situados cada 1500-2000 y remates extremos en curva. La barandilla se termina con una mano de imprimación, dos de clorocaucho y una de esmalte de acabado.

10) **Pasamanos doble de 1,5” con pies derechos**: Barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo galvanizado de 1,5” y 2,7 mm de pared, con doble pasamanos para personas de movilidad reducida, con pies derechos ejecutados con el mismo tubo o con llanta 50x10 mm del mismo material, situados cada 1500-2000 mm aproximadamente. La sujeción del segundo pasamanos se debe hacer mediante varilla del mismo material doblada de diámetro mínimo 14 mm soldada a los pies derechos, o en la propia llanta

11) **Pasamanos de 1,5” a pared**: pasamanos construido en tubo de acero galvanizado de 1,5” y 2,7 mm de pared mediante varilla de del mismo material de diámetro mínimo 14 mm, situadas cada 1500 aproximadamente. Las varillas se sujetarán a la pared mediante resinas apropiadas. La barandilla se termina con una mano de imprimación, dos de clorocaucho y una de esmalte de acabado.

12) **Defensa peatonal de una barra de 1,5”**: barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo galvanizado de 1,5" y 2,7 mm de espesor

mm-z behin direla. Baranda bukatzeko, inprimazio esku bat, klorokautxuzko bi eta esmaltezko bat eman behar da.

13) **Oinezkoentzako babesa, 1,5 ”-ko bi barra dituena**: 1000 mm altuko baranda, 1,5 ”-ko diametroko eta 2,7 mm lodiko hodi galbanizatuz egina, zutikoak gutxi goiti-beheiti 1500 mm-z behin direla, altueraren erdi parean material bereko barra bat luzetara dela eta puntetako bukaerak borobilduta edo bihurtuta direla. Baranda bukatzeko, inprimazio esku bat, klorokautxuzko bi eta esmaltezko bat eman behar da.

14) **Oinezkoentzako babesa, 2 ”-ko barra batekoa**: 1000 mm altuko baranda, 2 ”-ko diametroko eta 2,7 mm lodiko hodi galbanizatuz egina, zutiko zuzenak gutxi gorabehera 1500 mm-z behin direla. Baranda bukatzeko, inprimazio esku bat, klorokautxuzko bi eta esmaltezko bat eman behar da.

15) **Oinezkoentzako babesa, 2 ”-ko bi barra dituena**: 1000 mm altuko baranda, 2 ”-ko diametroko eta 2,7 mm lodiko hodi galbanizatuz egina, zutikoak gutxi goiti-beheiti 1500 mm-z behin direla, altueraren erdi parean material bereko barra bat luzetara dela eta puntetako bukaerak borobilduta edo bihurtuta direla. Baranda bukatzeko, inprimazio esku bat, klorokautxuzko bi eta esmaltezko bat eman behar da.

16) **Lorategia babestekoa, bi arkukoa**: Zintarriaren errematea, 12mm-ko altzairu trinkoa bihurrituta egina, ardatzen artean 240 mm direla eta 470 mm-ko gune zuzena duela beheko aldean 700 mm-koa goiko aldean, eta 50x6 mm-ko pletina beheko partean. Zinkez sutan metaleztatutako tratamendua izango du, materiala jariatuta, eta labean margotua gero poliester-hautsezko pinturaz.

17) **Hercules motako itxitura/hesia**: Elektrosoldatuko panelez osatutako hesia, errefortzu-tolesturekin (Hercules motakoa). Sarearen tartea 200x50 mm izango da (50x50

con pies derechos situados cada 1500 mm aproximadamente. La barandilla se termina con una mano de imprimación, dos de clorocaucho y una de esmalte de acabado.

13) **Defensa peatonal de dos barras de 1,5”**: barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo galvanizado de 1,5" y 2,7 mm de espesor con pies derechos, situados cada 1500 mm aproximadamente, barra horizontal intermedia del mismo material y remates extremos en curva. La barandilla se termina con una mano de imprimación, dos de clorocaucho y una de esmalte de acabado

14) **Defensa peatonal de una barra de 2”:** barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo galvanizado de 2" y 2,7 mm de espesor con pies derechos situados cada 1500 mm aproximadamente. La barandilla se termina con una mano de imprimación, dos de clorocaucho y una de esmalte de acabado.

15) **Defensa peatonal de dos barras de 2”**: barandilla de 1000 mm de altura construida en tubo galvanizado de 2" y 2,7 mm de espesor con pies derechos situados cada 1500 mm aproximadamente, barra horizontal intermedia del mismo material y remates extremos en curva. La barandilla se termina con una mano de imprimación, dos de clorocaucho y una de esmalte de acabado.

16) **Guardajardín de doble arquillo**: Remate bordillo construido en redondo de acero macizo de l2mm. curvado, con 240mm entre ejes y zona recta de 470mm de la parte baja y 700 de la parte alta. y pletina en parte baja de 50x6mm. La barandilla llevará un tratamiento de metalizado a fuego con cinc, previo chorreo del material y estará pintada con pintura en polvo de poliéster al horno.

17) **Cerramiento/vallado tipo Hércules**: Vallado formado por panel de malla electrosoldada con pliegues de refuerzo (tipo Hércules), de 200x50

mm tolestura gunean), eta 5 mm-ko diametroko lodiera, denera 2,50x2,00 m egiten duela. Bukaera galbanizatua eta kolore berdez (RAL 6015) plastifikatuta izango du. Zutoinak 60x40x2 mm profilak izango dira, barrutik hutsik direla. Hormigoizko dadoetan sartuta jarriko da (tokian bertan zuloak eginda ere bai, hala egin behar bada), zulatuta edo euskarriari torlojuak sartuta. Bihurdura bakuneko sarea metalezko zutoinei finkatzeko behar diren osagarri guztiak ere sartuta izango dira.

18) **Bihurdura bakuneko itxitura/hesia**: Bihurdura bakunez egindako sarez osatutako hesia, 40 mm-ko tartea eta ⅔ mm diametro lodiera dela. Bukaera galbanizatua eta kolore berdez (RAL 6015) plastifikatuta izango du. Zutoinak altzairu galbanizatu eta margotuak izango dira, 18 mm-ko diametroko eta 2 metroko altuerakoak. Orobat tarteko, barruko, muturreko eta eskuairako zutoinen zati proportzionala ere. Hormigoizko dadoetan sartuta jarriko da (tokian bertan zuloak eginda ere bai, hala egin behar bada), zulatuta edo euskarriari torlojuak sartuta. Bihurdura bakuneko sarea metalezko zutoinei finkatzeko behar diren osagarri guztiak ere sartuta izango dira.

19) **70Ø-ko pibote herdoilgaitza:** AISI-316 altzairu herdoilgaitzezko hodi leunduan egindako pibotea (70 mm-ko diametroko eta 2 mm lodiko hodia), material bereko tapa kurbatua ere izango duena eta kazolan sartu eta buloiz lotzeko. Unitatean, pibotearen material bereko buloia eta kazola tapadun bat ere sartu behar dira. Kazolak altzairu galbanizatuzkoa izan behar du, lurpean sartzeko.

20) **70Ø-ko pibote herdoilgaitza berriz jartzea:** Lehen deskribatutako modeloko pibotea 70 mm diametroko hodian berriz jartzea, lehen zen diametro bereko kazola batean, buloia barne.

21) **90Ø-ko pibote herdoilgaitza**: AISI-316 altzairu herdoilgaitzezko hodi leunduan egindako pibotea (84 mm-ko diametroko eta 2 mm lodiko

mm de paso de malla, reducido a 50x50mm en la zona de pliegue, y 5 mm de diámetro, de 2,50x2,00 m, acabado galvanizado y plastificado en color verde RAL 6015, y postes de perfil hueco de sección rectangular 60x40x2 mm. Colocado empotrado en dados de hormigón (incluso excavación de pozos en el terreno), con perforación o con soporte atornillado. Se incluyen todos los accesorios necesarios para la fijación de la malla de simple torsión a los postes metálicos

18) **Cerramiento/vallado tipo simple torsión**: Vallado formado por malla de simple torsión, de 40 mm de paso de malla y ⅔ mm de diámetro, acabado galvanizado y plastificado en color verde RAL 6015 y postes de acero galvanizado pintado de 18 mm de diámetro y 2 metros de altura. Incluso parte proporcional de postes intermedios, interiores, extremos y en escuadra. Colocado empotrado en dados de hormigón (incluso excavación de pozos en el terreno), con perforación o con soporte atornillado. Se incluyen todos los accesorios necesarios para la fijación de la malla de simple torsión a los postes metálicos.

19) **Pivote inoxidable de Ø70**: pivote fabricado en tubo de 70 mm de acero inoxidable pulido AISI-316 de 2 mm de espesor con tapa curva del mismo material preparado para sujetar en cazoleta mediante bulón. En la unidad se deberá incluir el bulón del mismo material que el pivote y la cazoleta con tapa, de acero galvanizado para enterrar.

20) **Reposición pivote inoxidable de Ø70**: Reposición del modelo descrito anteriormente fabricado en tubo de 70 mm, en una cazoleta ya existente del mismo diámetro, incluyendo el bulón.

21) **Pivote inoxidable de Ø90**: Pivote fabricado en tubo de 90mm de acero inoxidable pulido AISI-

hodia), material bereko tapa kurbatua ere izango duena. Piboteak 1000 mm luze izango dira sartu baino lehen, eta 800 aterako dira lurretik gora zoruan sartu eta gero.

22) **90Ø-ko pibote herdoilgaitza berriz jartzea:** Lehen deskribatutako modeloko pibotea 90 mm diametroko hodian berriz jartzea, lehen zen diametro bereko kazola batean, buloia barne.

23) **114Ø-ko pibote herdoilgaitza**: AISI-316 altzairu herdoilgaitzezko hodi leunduan egindako pibotea (114 mm-ko diametroko eta 2 mm lodiko hodia), material bereko tapa kurbatua ere izango duena, Udalaren giltzarrapoarekin lotzeko modukoa lurpean sartuta izango den kazolari. Gune lau bat ere izan behar du euskarria haren gainean jartzeko. Unitatean material bereko kazola tapadun bat ere sartu behar da, lurperatzeko.

24) **114 Ø-ko pibote herdoilgaitza berriz jartzea**: Lehen deskribatutako modeloko pibotea 114 mm diametroko hodian berriz jartzea, lehen zen diametro bereko kazola batean, buloia barne.

25) **Pibote karratu zuria eta gorria, kazola eta buloiduna:** Sartu eta ateratzeko moduko pibotea, 89x7x7 cm-ko burdinurtuzko gorputza eta 14x7x7 cm-ko altzairu galbanizatuzko oinarria izango dituena. Hormigoizko oinarri bati lotuko zaio (zulatu eta hartuta). Multzoaren luzera osoa: 103 cm; itxitura: buru triangeluarreko giltza edo giltzarrapoa jartzeko buloia; akabera: babes herdoilgaitza eta pintura.

Aurreko zerrendan jaso ez den elementuren bat berriz jarri behar izanez gero, haren antzekoa jarri beharko da, Udalaren zerbitzu teknikoek geometria eta material aldetik emandako irizpideak kontuan hartuta.

Barandak/itxiturak ainguratzea baranden/itxituren eskuineko zutikoen luzapenak edo baranda/itxitura estandarraren zarpak zoruan sartu eta masaz hartuta egingo da, salbu eta barandaren/itxituraren kokapenak

316 de 2 mm de espesor con tapa curva del mismo material. Los pivotes son de 1000 mm de longitud antes de la instalación, sobresaliendo 800 sobre el suelo una vez empotrados en el pavimento.

22) **Reposición pivote inoxidable de Ø90**: Reposición del modelo descrito anteriormente fabricado en tubo de 90 mm, en una cazoleta ya existente del mismo diámetro, incluyendo el bulón.

23) **Pivote inoxidable de Ø114:** pivote fabricado en tubo de 114 mm de acero inoxidable pulido AISI-316 de 2 mm de espesor con tapa curva del mismo material, preparado para sujetar mediante candado municipal a cazoleta enterrada en pavimento con zona plana para apoyo de la sujeción. En la unidad se debe incluir la cazoleta con tapa para enterrar, del mismo material.

24) **Reposición pivote inoxidable de Ø114**: Reposición del modelo descrito anteriormente fabricado en tubo de 114 mm, en una cazoleta ya existente del mismo diámetro, incluyendo el bulón.

25) **Pivote cuadrado blanco y rojo con cazoleta y bulón:** Pivote con cuerpo extraíble de fundición de 89x7x7 cm y base empotrable de acero galvanizado de 14x7x7 cm, fijado a una base de hormigón (incluso perforación y recibido). Longitud total del conjunto 103 cm, cierre mediante llave de cabeza triangular o bulón para colocación de candado, acabado con protección antioxidante y pintura.

En caso de reposición de algún elemento no determinado en el anterior listado, se asemejará a una de ellas atendiendo a criterios de geometría y materiales por los servicios técnicos municipales.

El anclaje de las barandillas/cerramientos se hará embutiendo y recibiendo con masa en el pavimento la prolongación de los pies derechos de las

hala egiten uzten ez badu edo Udalaren zerbitzuek beste era batera egitea erabakitzen badute. Kasu horretan, asentatzeko plaka bat oinari soldatu eta hura tirafondo eta takoz edo hagaxka batzuk sartu eta haiek dagokion erretxinaz hartuta ainguratuko dira barandak eta itxiturak. Soldadura guztiak kontaktuan dauden azalera guztiak estaltzen dituen kordoi baten bidez egingo dira, eta ez da puntukako soldadurarik onartuko Kasu guztietan, lanaren eta bere unitateko prezioen barruan honako hauek sartzen dira: egoera txarrean dauden elementuak kentzea, beharrezkoa bada; hondakinak kudeatzaile baimendu batek garraiatu eta tratatzea; deskribatutako elementua instalatzea; materialak; eskulana; instalazio-lekuraino garraiatzea, eta fabrikaziorako eta instalaziorako beharrezkoa den beste edozein kontzeptu edo elementu osagarri. Unitateko prezioen barruan sartzen dira, baita ere, lotutako lanak, hala nola elementuak ebaki eta soldatzea; muturreko erremateak egitea; zutikoak pikatzea eta hartzea, are "in situ" soldatutako punta edo zarpak jartzea ere, hobeto finkatuta gelditzeko; eragindako materialen pintaketa/akabera, material motaren arabera. Hau da, lanak behar bezala amaitzeko behar diren lan guztiak.	barandillas/cerramientos o las zarpas de la barandilla/cerramiento tipo, salvo en los casos en que la ubicación de la barandilla/cerramiento no lo permita o así lo decidan los servicios municipales. En ese caso el anclaje deberá de hacerse con placa de asiento soldada y tirafondos y tacos de expansión o varillas recibidas con resinas apropiadas. Todas las soldaduras se realizarán mediante un cordón que cubra la totalidad de las superficies en contacto, no permitiéndose soldaduras por puntos. En todos los casos, se incluye dentro de los trabajos y sus precios unitarios, la retirada de elementos en mal estado si fuera necesario, el traslado y tratamiento de los residuos por gestor autorizado, la instalación del elemento descrito, los materiales, la mano de obra, el transporte hasta el lugar de instalación y cualquier otro concepto o elemento auxiliar necesario para la fabricación y la instalación. Los precios unitarios incluyen asimismo los trabajos asociados como son el corte y el soldado de los elementos; la realización de remates extremos; el picado y recibido de pies derechos, incluso zarpas soldadas "in situ" para mayor fijación, pintado/acabado de los materiales afectados, según tipo de material. Es decir, todos los trabajos necesarios para la correcta finalización de los mismo.
2.2.- HORNIDURAK	**2.2.- SUMINISTROS**
26) **IFAM K60 giltzarrapoa edo baliokidea unibertsala.** Giltzarrapoa, letoi estrusioz egindako gorputzarekin. Altzairu karbonitruratuzko arkua du, tenplatua eta kromatua. Katigatze bikoitzeko sistema automatikoarekin, anzuaren aurkako segurtasun-bonbillarekin eta AISI 316 altzairu herdoilgaitzezko malgukiekin eta bi giltzekin irekitzea/ixtea. Giltzarrapoak IFAM K60 edo baliokide berekoak izango dira, eta gaur egun Donostiako Udalaren jabetzako bide publikoan dauden pibote eta itxituretan erabiltzen den giltza bera.	26) **Candado universal IFAM K60 o equivalente**. Candado con cuerpo fabricado en latón extruido, cuyo arco es de acero carbonitrurado, templado y cromado. La apertura/cierre con sistema automático de doble enganche, bombillo de seguridad antiganzúa y muelles de acero inoxidable AISI 316 y con dos llaves. Los candados serán del mismo modelo IFAM K60 o equivalente y la misma llave utilizada actualmente en los pivotes y cierres situados en la vía pública y propiedad exclusiva del ayuntamiento de Donostia.
27) **IFAM K60 giltzarrapoa edo baliokidea amaestratua**. Giltzarrapoa, letoi estrusioz	27) **Candado amaestrado IFAM K60 o equivalente**. Candado con cuerpo fabricado en latón

egindako gorputzarekin. Altzairu karbonitruratuzko arkua du, tenplatua eta kromatua. Katigatze bikoitzeko sistema automatikoarekin, dantzaren aurkako segurtasun-bonbilloarekin eta AISI 316 altzairu herdoilgaitzezko malgukiekin irekitzea/ixtea. Bi giltza horiek giltzarrapo amaestratua bakarrik ireki ahal izango dute, baina giltzarrapo unibertsalaren giltzarekin ireki ahal izango dira.

extruido, cuyo arco es de acero carbonitrurado, templado y cromado. La apertura/cierre con sistema automático de doble enganche, bombillo de seguridad antiganzúa y muelles de acero inoxidable AISI 316 y con dos llaves que solo podrán abrir el candado amaestrado, pero se podrán abrir con la llave del candado universal.

2.3.- LANAK ADMINISTRAZIOAREN ARABERA

Mantendu eta konpondu beharreko elementuen tipologiak nahiko maiz eskatuko du antzeko beste errementaritza-lan batzuk egitea, batez ere konponketak, eta lan horiei ezin izango zaizkie esleitu dokumentu honen 2.1 puntuan eta I. eranskinean jasotako unitateko prezioak; hortaz, materiala administrazioaren bidez eskuratuta egin beharko dira.

Lan horiek egiteko, enpresa esleipendunak balorazio bat aurkeztuko du. Balorazioan, honako kontzeptu hauei dagozkien unitateko prezioak sartuko dira, eta horiei lanerako behar den materiala gehituko zaie (material bat baino gehiago izanez gero, banakatuta).

28) **1º mailako ofizialaren ordua**: 1º mailako ofizialaren ordua; gutxienez 5 urteko esperientzia izan behar du errementaritza-lanetan.

29) **2º mailako ofizialaren ordua**: Langilearen ordua; gutxienez 2 urteko esperientzia izan behar du errementaritza-lanetan.

30) **Kamioiaren ordua:** Materiala garraiatzeko kamioiaren ordua.

31) **Garabidun kamioiaren ordua**: Garabidun kamioiaren ordua, materialak garraiatzeko eta instalazioetan laguntzeko. Garabiak 300 kg-ko kapazitatea izan beharko du, gutxienez, kamioitik 5 metrora

32) **Hiriko edozein lekutara joatea**: Hiriko edozein lekutara joatea, lanak materiala administrazioaren bidez eskuratuta egiteko.

2.3.- TRABAJOS POR ADMINISTRACIÓN

La tipología de los elementos a mantener y reparar requerirá con cierta frecuencia realizar otros trabajos afines de herrería, principalmente reparaciones, a los que no es posible adjudicar alguno de los precios unitarios descritos en el punto 2.1 y en el anexo I de este documento y que deberán ejecutarse por administración.

Para la realización de estos trabajos la empresa adjudicataria presentará una valoración. En la valoración se incluirán, los precios unitarios por los siguientes conceptos, a los que se añadirá el material necesario (desglosado en caso de existir diferentes materiales) para el trabajo.

28) **Hora de oficial de 1º**: Hora de oficial de 1º con 5 años de experiencia mínima en trabajos de herrería.

29) **Hora de oficial de 2º:** Hora de oficial de 2º con 2 años de experiencia mínima en trabajos de herrería

30) **Hora de camión:** Hora de camión para el transporte de materiales.

31) **Hora de camión-grúa**: Hora de camión-grúa para transporte de materiales y ayuda en instalaciones. Con capacidad mínima de 300 kg a 5 metros de distancia del camión.

32) **Desplazamiento a cualquier punto de la ciudad**: Desplazamiento a cualquier punto de la

	ciudad, para la ejecución de trabajos por administración.
Kontratuaren Arduradunak balorazioa kontuan hartuko dute kasuan kasuko elementua berritzeko edo mantentzeko erabakia hartzeko. Onartuz gero, lan horiengatik ordaindu beharrekoa kontratuaren prezioaren barruan sartuko da.	El Responsable del Contrato tendrá en cuenta la valoración a la hora de tomar la decisión de reponer o mantener el elemento en cuestión. En caso de ser aprobado, el abono de estos trabajos entrará dentro del precio del contrato.
3.- LANEN ANTOLAKETA	**3.-ORGANIZACIÓN DE LOS TRABAJOS**
Enpresa lizitatzaileek abisuak jasotzeko eta lanak egiteko ezarri nahi duten antolaketa-sistema azaldu beharko dute eskaintzan.	Las empresas licitadoras deberán incluir en la oferta el sistema organizativo que prevén implantar para la recepción de avisos y la realización de los trabajos.
Elementu arriskutsuren bat detektatzen bada, esleipendunak ***gehienez berrogeita bost (45) minutu*** izango ditu abisuari erantzuteko, arriskua kenduz edo behar bezala seinalatuz, astelehenetik ostiralera.	En los casos en los que se detecte un elemento peligroso la adjudicataria estará obligada a atender el aviso en un ***tiempo máximo de cuarenta y cinco (45) minutos***, eliminando el peligro generado o señalizándolo debidamente, de lunes a viernes.
Lanak egin bitartean, seinaleek edo testudun oharrek bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko dute, euskarari lehentasuna emanez.	Durante la ejecución de los trabajos la señalización o los avisos con texto deberán estar redactados en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera
Esleipendunak udal-zerbitzuen bitartez helarazten zaizkion abisuei erantzun beharra dauka. Bide publikoko gorabeheren datu-basearen bidez esleitzen diren lanetan, esleipendunaren ardura izango da gorabeherak amaitutzat ematea, arazoa konpondutakoan. Halaber, abisu-sistema horretan egin daitezkeen aldaketak bere egin beharko ditu, halakorik balego.	La adjudicataria estará obligada a atender los avisos que se le envíen a través de los servicios municipales. En los trabajos que se asignen mediante la base de datos de incidencias en la vía pública la adjudicataria será la responsable de dar por finalizadas las incidencias cuando el problema se haya resuelto. También estará obligada a asumir las posibles modificaciones de este sistema de avisos, si las hubiere.
Esleipendunak ***hamabostean behin***, gutxienez, lan-parte bat egin beharko du, egindako lan guztiak azalduta. Gainera, kontratuaren xede diren lanei buruz eskatzen zaion beste edozein txosten ere egin beharko du.	La adjudicataria deberá realizar como mínimo un **parte de trabajo quincenal** indicando todos los trabajos realizados. Además, estará obligada a realizar cualquier otro informe que se le requiera sobre los trabajos objeto del contrato.
4.- GIZA BALIABIDEAK	**4.- RECURSOS HUMANOS**
Enpresa lizitatzaileek, gutxienez, solaskide/arduradun bat izan beharko dute, lanak zuzentzeko eta kontratua indarrean dagoen bitartean beharrezkoak diren bisitak eta berrikuspenak egiteko. Arduradunari gutxienez 10 urteko esperientzia eskatuko zaio errementaritza-lanetan edo horrelako lanak egiten dituzten taldeen	Las empresas licitadoras deberán contar al menos con un contacto/responsable que dirija los trabajos y realice cuantas visitas y revisiones sean necesarias durante el tiempo que esté vigente el contrato. La experiencia mínima requerida para la persona responsable será de 10 años en la realización de trabajos de herrería o en la

zuzendaritzan. Pertsona horrek bisita eta berrikuspenetan emandako lan-denbora ez da fakturatuko, gainerako kontzeptuetan sartuta dago-eta.	dirección de grupos que realicen esos mismos trabajos. El tiempo de trabajo invertido por esa persona en visitas y revisiones no se facturará y está incluido en el resto de los conceptos.
Abisuak jasotzeko eta Kontratutaren Arduradunarekin komunikazioak mantentzeko telefono mugikorra eta helbide elektronikoa izan beharko ditu. Pertsona hori lan egiteko eta telefono horretan aurkitzeko moduan egongo da lanaldiak dirauen bitartean. Solaskideak/arduradunak gaitasun nahikoa izan beharko du ematen zaizkion lanak egiteko aginduak emateko behar diren erabakiak hartzeko.	Deberá disponer de teléfono móvil y una dirección de correo electrónico para la recepción de los avisos y para el mantenimiento de comunicaciones con el Responsable del Contrato. Dicha persona estará disponible y localizable en el citado teléfono durante la jornada laboral. La persona de contacto/responsable deberá tener la capacidad de tomar decisiones suficientes para ordenar la ejecución de los trabajos que se le encarguen.
Pertsona horrek egingo ditu bisitak kontratuaren arduradunarekin, eta ez du inolako konpentsazio ekonomikorik izango. Gainera, ibilgailu bat eduki beharko du bisita horiek egiteko. Edozein arrazoi dela eta, lanerako prest ez badago, bere eginkizunak bere gain hartuko dituen beste pertsona bat izendatu beharko du.	Esta persona será la encargada de realizar las visitas con el Responsable del Contrato sin que por ello medie compensación económica alguna. Además, deberá de disponer de un vehículo para la realización de dichas visitas. En los momentos en los que, por las razones que sean, no estuviera disponible deberá designar a otra persona que asuma sus funciones.
Gutxienez 1. mailako bi ofizial eta 2. mailako bi ofizial izan beharko dituzte. 1. mailako ofizialek gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute errementaritza-lanetan, eta 2. mailako ofizialek, berriz, gutxienez 2 urteko esperientzia errementaritza-lanetan.	También deberán contar con al menos dos oficiales de 1º y dos oficiales de 2º. Los/las oficiales de 1º deberán contar con una experiencia mínima en trabajos de herrería de 5 años y los/as oficiales de 2º, deberán contar con una experiencia mínima en trabajos de herrería de 2 años.
Gainera, administrazio-alderdian lan egiten duen pertsona bat izan beharko du, abisuak jasotzeko, fakturak kudeatzeko eta egindako edo fakturatutako lanei nahiz gaur egun Donostian instalatutako baranda/itxituren egoerari buruzko edozein txosten prestatzeko. Lan horiek kontratuaren gainerako kontzeptuen barruan sartzen dira, eta, beraz, ez du prestazio ekonomikorik jasoko.	Además, deberá de contar con una persona que se dedique a la parte administrativa, para la recepción de avisos, gestión de facturas y la preparación de cualquier informe tanto sobre los trabajos realizados o facturados como sobre el estado de las barandillas/cerramientos instalados actualmente en la ciudad de Donostia/ San Sebastián, considerando este tipo de trabajos dentro del resto de conceptos del contrato, por lo que no percibirá prestación económica.
5.- BALIABIDE MATERIALAK	**5.- RECURSOS MATERIALES**
Esleipendunak lantegi bat izan beharko du preskripzio-agiri honen xede diren lanak egiteko. Bestalde, ezinbestekotzat jotzen da pintatzeko toki bat izatea, bai eta materiala lehortzeko labe bat ere, tratamendu hori eskatzen duen materiala lehortzeko, edo, bestela, elementu hori duen beste enpresa batekin hitzarmena	La adjudicataria deberá disponer de un taller para la realización de los trabajos objeto de este pliego. También se considera imprescindible que dispongan de una zona de pintura y un horno para el secado del material que exija tal tratamiento o convenio con otra empresa que disponga de él.

sinatuta izatea.	
Gainera, biltegi bat izan beharko du, lantegitik kanpo edo lantegian bertan, lehen aipatutako 5 baranda mota ohikoenetatik gutxienez 10 metro lineal sabaipean eta giltzapean gorde ahal izateko, bai eta behin-behinean kentzen den materiala berriro beste leku batean jarri arte gordetzeko ere. Bere instalazioetan gordetzen duen udal-materialaren inbentario eguneratua izan beharko du. Inbentario hori une oro egongo da eskuragarri udal-zerbitzu teknikoentzat.	Además, deberá disponer de un almacén bien aparte del taller o bien en el propio taller que le permita guardar bajo techo y bajo llave un mínimo de 10 metros lineales de los 5 tipos de barandillas más comunes antes citadas, así como almacenar el material que por motivo de su retirada provisional debe ser guardado hasta su recolocación. Deberá llevar un inventario actualizado del material propiedad del ayuntamiento que acopie en sus instalaciones. Dicho inventario estará disponible para los servicios técnicos municipales en todo momento.
Ezinbesteko makineriaren artean, esleipendunak hidrogarbigailu elektriko bat izan behar du, gutxienez, 2000 W-ko potentzia eta 100 bareko presioa dituena, baranden hankak garbitzeko, eta gutxienez 3000 W-ko potentzia duen multzo sortzaile elektriko intsonorizatu bat, lantegitik kanpo egiten diren lanetan makinak elikatzeko.	Entre la maquinaría imprescindible deberá haber una hidrolimpiadora eléctrica con potencia mínima de 2000 W y 100 bares de presión para la limpieza de las patas de las barandillas y un grupo generador eléctrico insonorizado de potencia mínima de 3000 W para la alimentación de las máquinas en los trabajos que se realicen fuera del taller.
Bi kamioi izan ere beharko ditu, bata garabiarekin eta bestea, garabirik gabe. Bi kamioiak 3500 kg-ko BGMkoak izango dira, hiriko toki guztietan ibili ahal izateko. Garabia duen kamioia kutxa irekikoa izango da eta instalatutako garabiak, gutxienez, 300 kg-ko gutxieneko kapazitatea izango du kamioitik 5 metrora.	También deberá disponer de dos camiones uno con grúa y el otro sin ella. Ambos camiones serán de MMA 3500 kg, para poder desplazarse por todos puntos de la ciudad. El camión con grúa será de caja abierta y la grúa instalada deberá tener una capacidad mínima de 300 kg. a 5 metros de distancia del camión.
Oinezkoen babesgarriak fabrikatzeko, ezinbestekoa izango da lantegian hodiak kurbatzeko makina bat izatea, 50,8 mm-ra (2'') arteko diametroa duten hodiak kurbatzeko gaitasuna duena.	Para la fabricación de las defensas peatonales será imprescindible que cuente en el taller con una máquina curvadora de tubos con capacidad para curvar tubos de hasta 50,8 mm (2") de diámetro.
Era berean, hormigoirako koroa-zulagailu bat ere izan beharko du, ur bidezko hozte-sistema duena, beharrezko zuloak egin ahal izateko barandak zoladuran zuzenean enbutitutako hankekin lortzeko.	También es necesario contar con un taladro de corona para hormigón con refrigeración por agua que permita la realización de los agujeros necesarios para la sujeción de las barandillas con las patas directamente embutidas en el pavimento.
Gainera, lanak egiteko egokitzat jotzen duen beste edozein tresna eduki beharko du. Eskura dituen baliabide materialen zerrenda ahalik eta zehatzena aurkeztuko da: tailerra eta egon daitezkeen beste lokal batzuk, ibilgailuak, esku-erremintak, makineria, eta kontratuaren xederako egokitasuna. BAAZ-ko 19.1 atalean eskatzen den bezala.	Además, deberá disponer de cualquier otra herramienta que considere oportuna para la realización de los trabajos. Se presentará una lista lo más detallada posible de los medios materiales de los que dispone: taller y otros posibles locales, vehículos, herramientas de mano, maquinaria, y su idoneidad para el objeto del contrato. Tal y como se solicita en el apartado19.1 del PCAP.

6.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA HONAKINEN KUDEAKETA	6.- PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES Y GESTIÓN DE RESIDUOS
Enpresa esleipendunak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko du.	La empresa adjudicataria deberá cumplir con lo establecido en la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y en el Real Decreto de los Servicios de Prevención.
Donostiako Udalak behar diren zaintza-neurriak hartuko ditu kontratistak dituen prebentzio-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.	El Ayuntamiento de Donostia adoptará las medidas de vigilancia oportunas para verificar el cumplimiento por parte del contratista de las obligaciones de prevención que le son exigibles.
Nolanahi ere, esleipendunak bere langileen segurtasunaren ardura guztia izango du, bai eta hirugarrenen aurrean izan ditzakeen erantzukizunena ere, bai ikuskatze-faltagatik edo gaizki ikuskatzeagatik, bai konponketa-lanetan izandako gorabeherengatik.	En cualquier caso, la adjudicataria será plena responsable de la seguridad de sus trabajadores, así como de posibles responsabilidades ante terceros, bien por la falta o defectuosa inspección, bien por incidentes en los trabajos de reparación.
Kontratuak irauten duen bitartean, Donostiako Udalak horri lotutako edozein agiri eskatu ahal izango du, egiaztapenak egiteko.	Durante la duración del contrato, el Ayuntamiento de Donostia, podrá solicitar cualquier documentación a este respecto, para su comprobación.
Esleipendunak hiru hilean behin aurkeztu beharko du kontratu honen ondorioz sortutako hondakinen kudeaketari dagokion dokumentazioa.	La adjudicataria deberá presentar cada 3 meses la documentación correspondiente a la gestión de residuos generados por el presente contrato.
7.-ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUNKIZUNA	**7- RESPONSABILIDAD DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA**
Enpresa esleipenduna izango da bere langileei, hirugarrenei edo udal-ondasunei eragindako kalteen erantzule, honako kasu hauetan: ✓ Lanak egin bitartean. ✓ Lanak behar bezala ez egiteak kalterik eragin badu. ✓ Kaltea gertatu bada lan-eremua edo elementu pintatu berriak nahiz konponketa-prozesuan dauden elementuak gaizki seinaleztatu direlako.	La empresa adjudicataria será responsable de los daños generados a su propio personal, a terceros o a bienes municipales en los siguientes supuestos: ✓ Durante la ejecución de los trabajos. ✓ En el caso de daños derivados de una incorrecta realización de los trabajos. ✓ Cuando el daño se produzca con motivo de una incorrecta señalización del ámbito de trabajo o de elementos recién pintados o en proceso de reparación, o recién pintados.
Donostian, sinaduraren egunean HIRI ALTZARIEN ARDURADUN KUDEATZAILEA	Donostia, a fecha de la firma RESPONSABLE DE MOBILIARIO URBANO

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUEN ATALA / SECCIÓN DE MANTENIMIENTO Y SERVICIOS URBANOS

ERANSKINAK	**ANEXOS**
I ERANSKINA: PREZIO UNITARIOAK	**ANEXO I: PRECIOS UNITARIOS**

ZK / Nº	KONTZEPTUA / CONCEPTO	UNITATEA / UNIDAD	GEHINEZKO PREZIOA (BEZ gabe) / PRECIO MAXIMO (sin IVA)	ESKEINITAKO PREZIOA (BEZ gabe) / PRECIO OFERTADO (sin IVA)
EXEKUZIOAK / EJECUCION				
HIRIKO BARANDAK / BARANDILLAS AYUNTAMIENTO				
1	Baranda tipoa / Barandilla tipo	€/ML	362,25 €	
2	Pasealeku BerrikoPaseo Berriko baranda modeloa / Barandilla modelo Paseo Nuevo	€/ML	841,00 €	
3	Salmanka Paselekuko baranda erdoilgaitza / Barandilla inox Paseo de Salamanca	€/ML	402,25 €	
4	Haurrrentzako jolasen baranda erdoilgaitza / Barandilla inox juegos infantiles	€/ML	246,00 €	
BARANDA ERDOILGAITZAK / BARANDILLAS INOXIDABLES				
5	Baranda tipo erdoilgaitza / Barandilla tipo inox	€/ML	356,50 €	
6	50,8 mm-ko hodi bateko eskudel erdoilgaitza, zutiko zuzenekin (hodia edo haguna) / Pasamanos inox un tubo 50,8 mm con pies derechos (Tubo o llanta)	€/ML	205,50 €	
7	50,8 mm-ko bi hodiko eskudel erdoilgaitza, zutiko zuzenekin (hodia edo haguna) / Pasamanos inox doble 50,8 mm con pies derechos (Tubo o llanta)	€/ML	272,00 €	
8	50,8 mm-ko hormara eskudel erdoilgaitza / Pasamanos inox a pared 50,8 mm	€/ML	151,25 €	
BARANDA GALBANIZATUAK / BARANDILLAS GALVANIZADAS				
9	Eskudel galbanizatua 1,5", zutiko zuzenekin (hodia edo haguna) / Pasamanos galvanizado 1,5", con pies derechos (tubo o llanta),	€/ML	192,00 €	
10	Eskudel bikoitza galbanizatua 1,5", zutiko zuzenekin (hodia edo haguna) /Pasamanos galvanizado doble 1,5", con pies derechos (tubo o llanta)	€/ML	255,00 €	
11	Eskudel galbanizatua hormara 1,5" / Pasamanos galvanizado a pared 1,5"	€/ML	144,00 €	
OINEZKOENTZAKO DEFENTSAK / DEFENSAS PEATONALES				
12	1,5"-ko barra bateko oinezkoen defentsa / Defensa peatonal de una barra de 1,5"	€/ML	171,50 €	
13	1,5"-ko bi barrako oinezkoen defentsa / Defensa peatonal de dos barras de 1,5"	€/ML	187,50 €	
14	2"-ko barra bateko oinezkoen defentsa / Defensa peatonal de una barra de 2"	€/ML	179,75 €	
15	2"-ko bi barrako oinezkoen defentsa / Defensa peatonal de dos barras de 2"	€/ML	241,00 €	
LORATEGI BABESAK / GUARDAJARDINES				
16	Arkatz bikoitzeko lorategi babesa / Guardajardin de doble arquillo	€/ML	225,25 €	
HESIAK / VALLADOS				
17	2m-ko altuerako Hercules motako hesia / Vallado tipo Hercules de 2m de altura	€/ML	235,00 €	
18	2m-ko altuerako bihurdura bakarreko hesia / Vallado de simple torsión de 2m de altura	€/ML	71,25 €	

ZK / Nº	KONTZEPTUA / CONCEPTO	UNITATEA / UNIDAD	GEHINEZKO PREZIOA (BEZ gabe) / PRECIO MAXIMO (sin IVA)	ESKEINITAKO PREZIOA (BEZ gabe) / PRECIO OFERTADO (sin IVA)
EXEKUZIOAK / EJECUCION				
PIBOTEAK / PIVOTES				
19	Ø70 altzairu herdoilgaitzezko pibotea / Pivote inoxidable Ø70	***€/UD***	***185,00 €***	
20	Ø70 pibotea birjartzea / Reposición pivote Ø70	***€/UD***	***138,25 €***	
21	Ø90 altzairu herdoilgaitzeko pibotea / Pivote inoxidable Ø90	***€/UD***	***240,50 €***	
22	Ø90 altzairu herdoilgaitzeko pibotea birjartzea / Reposición pivote inoxidable Ø90	***€/UD***	***180,50 €***	
23	Ø114 altzairu herdoilgaitzeko pibotea / Pivote inoxidable Ø114	***€/UD***	***305,75 €***	
24	Ø114 pibotea birjartzea / Reposición pivote Ø114	***€/UD***	***228,50 €***	
25	Kaxoladun pibote txuri gorria / Pivote blanco y rojo cuadrado con cazoleta	***€/UD***	***203,50 €***	
26	Udal-giltzarrapoa giltza maisurekin / Candado municipal de llave maestra	***€/UD***	***36,00 €***	
27	Udal-giltzarrapoa giltza amaestratuarekin / Candado municipal de llave amaestrada	***€/UD***	***36,00 €***	
ADMINISTRAZIO BIDEZKO LANAK / TRABAJOS POR ADMINISTRACIÓN				
28	1º Ofiziala / Oficial 1º	***€/H***	***37,25 €***	
29	2º Ofiziala / Oficial 2º	***€/H***	***35,00 €***	
30	Kamioia / Camion	***€/H***	***96,25 €***	
31	Garabidun kamioia / Camión-grúa	***€/H***	***134,75 €***	
32	Hiriko edozein puntura desplazamendua / Desplazamiento a cualquier punto de la Ciudad	***€/UD***	***33,00 €***	

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Olatz Yarza Garagorri (03/03/2026 09:57 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : I84D-1D31-9H0B-WCUR